

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Datorren astelehenean, urtarrilak 12, EGAko azterketarako matrikulatzeko epea irekiko da

*Lehen proba otsailaren amaieran egingo da*

Viernes, 09 de enero de 2015

Datorren astelehenean, urtarrilak 12, 2015eko Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) lehen deialdirako matrikula irekiko da. Izena emateko epea hilaren 23a bitarte zabalik izango da, eta lehen proba otsailaren amaieran egingo da.

Matrikula orokorraren tasa 26 euro da, eta 13 euro lehen mailako familia ugarien kideentzat; bigarren mailakoentzako eta terrorismoaren biktimentzako matrikula, berriz, doan da.

Matrikularen inprimakia, ordainagiriarekin eta eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera, [Nafarroako Gobernuko erregistraren](#) batean aurkeztu beharko da, [30/1992 Legearen](#), Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzkoaren, 38.4 artikuluan ezarritako beste edozein bulegotan edo, Internet bidez, Foru Gobernuko [zerbitzuen katalogoan](#).

Azterketa 2014ko abenduaren 31 bitarte 16 urte bete dituzten pertsona orok egin dezake. Nolanahi ere, kanpoan geratuko dira beste erakunderen batek aurtengorako deitutako EGAko azterketetan matrikulatutakoak ere.

### Proben xehetasunak

Azterketa hiru probek osatuko dute: atariko, idatzia eta ahozkoa.

Atariko lehen proban test-erako 90 galdera sartuko dira, eta hautagaiek hizkuntzari buruz zer ezagutza duten ebaluatzeko balio dute gramatikako gaien nahiz normalean erabilitako hizkuntz baliabideen bidez; atariko proba, ahozko ulermeneko eta irakurmeneko probak osatzen dute.

Bestalde, idatzizko probak bi zati ditu: idatzi labur bat (gutxienez 150 hitzeko gutun, ohar edo antzekoren bat), eta zabalagoa den beste idatzi bat (gutxienez 250 hitzeko testu bat), epaimahaiak proposatutako gai edo egoera baten gainean.

Azkenik, ahozko proban bi zati daude: lehenengoan, bost minutu inguruko ahozko azalpena egingo da epaimahaiak proposatutako testu baten gainean azalpenak emanez; bigarrengoan, hautagaien artean, aurrez azaldutako gaietako eztabaida bat egingo da hamar minutuz.

Titulua eskuratzeko, hiru probak gainditu beharko dira.